



ALDEZ AURRETIKO KONTSULTA, IRADOKIZUNAK JASOTZEKO MARTXOAREN 9KO 4/2023 FORU LEGEA GARATZEKO ERREGELAMENDUA ONESTEN DUEN FORU DEKRETUARI BURUZ. FORU LEGE HORREK HIZPIDE DITU JUSTIZIA ERRESTAURATIBOA, BITARTEKARITZA ETA JARDUNBIDE ERRESTAURATIBO KOMUNITARIOAK

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua arautzen du herritarren parte hartzea lege eta erregelamendu maila duten arauak prestatzeko prozeduran. Honela dio, berariaz:

“Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik”.

Bestalde, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariaren urtarrilaren 8ko 1/2024 Foru Aginduak hasiera ematen dio foru dekretuaren proiektu bat egiteko prozedurari, zeinaren bidez onetsiko baita Justizia errestauratiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestauratibo komunitarioei buruzko martxoaren 9ko 4/2023 Foru Legea garatzeko erregelamendua.

Aurrekoa betetzeko, dokumentu hau egin da Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu eta kontsulta publikoa egiteko, Justizia errestauratiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestauratibo komunitarioei buruzko martxoaren 9ko 4/2023 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onesten duen foru dekretua prestatu aurretik.

A) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak

Justizia errestauratiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestauratibo komunitarioei buruzko martxoaren 9ko 4/2023 Foru Legeak garatu beharreko zenbait neurri, prozedura, plan eta erregistro ezartzen ditu:

Zehazki, lehen xedapen gehigarrian, Legeak honako alderdi hauek garatu behar direla ezartzen du:

- Nafarroako Bitartekaritza Erregistroaren sorrera eta funtzionamendu-arauak.
- Nafarroako Bitartekaritza Erregistroan izena emandako pertsona bitartekariak eta Bitartekaritza Erakundeek Kalitate Zigilua lortzeko bete beharreko baldintzak.
- Nafarroako Foru Komunitatean gauzatzen diren bitartekaritza prozesuen faseak arautzeko esparru orokorra, beren borondatez Nafarroako Bitartekaritza Erregistroan izena emandako pertsonak eta erakundeak zuzendua, edo, hala badagokio, horri atxikitzeko nahia dutenei, erregistroan izena eman ez badute ere.
- Beren borondatez Nafarroako Bitartekaritza Erregistroan izena emandako pertsonak eta erakundeak zuzendutako bitartekaritzako jokabide-kodea, zeinak barne hartuko duen, beste neurri batzuen artean, kodea urratuz gero bitartekaritzako kalitate zigilua galtzeko eta Nafarroako Bitartekaritza Erregistrotik kanporatua izateko aukera.
- Komunitateko agente errestauratibo izaera lortzeko eta Nafarroako Sare Errestauratiboaren parte izateko betekizunak.

4/2023 Foru Legea garatzeko Erregelamendua arautuko duen foru dekretu honen bidez, lege-aurreikuspen horiek benetan betetzea ahalbidetu nahi da.

B) Araua onestea beharrezkoa eta egokia ote den.

Justizia errestauratiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestauratibo komunitarioei buruzko martxoaren 9ko 4/2023 Foru Legeak ondorio guztiak izanen baditu, ezinbestekoa da hura erregelamendu bidez garatzea, eta garapen hori, foru lege beraren lehen xedapen gehigarriaren arabera, Nafarroako Gobernuari dagokio.

C) Arauaren helburuak.

Aurreko ataletan azaldutakoaren arabera, arauaren helburua da honako hauek garatzea:

- Nafarroako Bitartekaritza Erregistroaren sorrera eta funtzionamendu-arauak.
- Nafarroako Bitartekaritza Erregistroan izena emandako pertsona bitartekariak eta Bitartekaritza Erakundeek Kalitate Zigilua lortzeko bete beharreko baldintzak.
- Nafarroako Foru Komunitatean gauzatzen diren bitartekaritza prozesuen faseak arautzeko esparru orokorra, beren borondatez Nafarroako Bitartekaritza Erregistroan izena emandako pertsonen eta erakundeen zuzendua, edo, hala badagokio, horri atxikitzeko nahia dutenei, erregistroan izena eman ez badute ere.
- Beren borondatez Nafarroako Bitartekaritza Erregistroan izena emandako pertsonen eta erakundeen zuzendutako bitartekaritzako jokabide-kodea, zeinak barne hartuko duen, beste neurri batzuen artean, kodea urratuz gero bitartekaritzako kalitate zigilua galtzeko eta Nafarroako Bitartekaritza Erregistrotik kanporatua izateko aukera.
- Komunitateko agente errestauratibo izaera lortzeko eta Nafarroako Sare Errestauratiboaren parte izateko betekizunak.

D) Egon litezkeen beste aukera batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak)

Foru dekretua egiteaz besteko aukerak edo soluzioak oso mugatuak dira, foru lege bat garatzeko erregelamenduzko xedapena delako. Horregatik, lege-aurreikuspena kontuan hartuta, alderdi jakin batzuetarako alternatiba posible bakarra da foru dekretu bat egitea eta onartzea.